

# Abarak

UNAI BREA

## Hernan Cortesek zapaldutakoen memoria


*Aztec.* Gary Jennings. Atheneum Books (1980).

GARY JENNINGS (1928-1999) estatubatuar idazleak hamabi urte eman zituen Mexikon, herrialde hartako historia ikertzen, eta emaitza “trilogia azteka” deritzona izan zen. Hirukoteko lehenengo alea *Aztec* nobela bikaina da, 1980koa; hurrengo biekin ez zuen maila bera erdietsi, baina lasai, ez zaitzala “trilogia” berbak nahastu: *Aztec*-en kontatzen den istorioa beregaina da eta ez dauka, zorionez, ondorengo bi saio ustelagoen beharrik.

Zorroztasun historikoari ez dio ezer zor Jenningsen eleberriak. Izan ere, Virginian jaiotako egilea gehiago nabarmendu zen zorroztasun horregatik, bere idazle dohai-nengatik baino. Hala ere, eta esku artean hartzean ikaratuko zaituen arren –ia 900 orrialdeko haritzarra da–, hasi eta berehala harrapatuko zaitu liburuak. Higuina sortze-

raino bortitzak diren pasarteak maiz tartekatuta, *Aztec*-ek mexika herriko gizon baten bizitza kontatzen du –zuzenagoa zatekeen *Mexico* izenburua–; beraren bitartez Jenningsek gaur Mexiko esaten zaion lurralde horretako herrien bizimodua deskribatzen digu, espainiarrak iritsi aurreko urteetan eta baita konkistaren hasieran ere.

Historia ofizialak dioenaren kontrakorik esan gabe, gertatutakoa konkistatuaren ikuspuntutik azalduz haize berria eskaintzen du nobelak. Gainera, zirrikitu bat aurkitzen duen bakoitzean Jenningsek bestelako bertsioa eskaintzen du: esaterako, bere ustez Motecuzoma benetan nork hil zuen esaten digu –Historiari argitzeke dauka–, eta Malintzin traidorearen jatorria testu-liburuetan aipaezina litzatekeen eran agertzen du. Kasik esango nuke traidore modura aurkezte hutsa eskertzekoa dela, beti espainiarren bertsioa entzuterara ohituta gaudenontzat. ■



BIZKAIKO  
**BERTSOLARI**  
KAMPANIA 2010

**FLYING HEADS GAT**.com

**3. BERT**

**urriaren  
24an,  
AULESTIKO  
TORREZELAI  
FRONTOIAN  
17:30ean**

**MIKEL GOIRIENA  
GORKA OSTOLAZA  
ARRATE ILLARO  
IBON AJURIA  
XABAT GALLETEBEITIA  
PERU VIDAL**

Gai-emolea:  
**LEIRE BILBAO**

**Bizkaiko**

**BFA DFB**

**bbk**

**LEA (ARRAZO ETAL HANDEGUNA)GOKO**

**hitza**

LAGUNTZAILEA